

## 19/07 IRIZPENA

Nélida Zaitegi, lehendakaria  
Josean Bueno  
Ainara Ibañez  
Begoña Pedrosa  
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2019ko maiatzaren 2ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **Hezkuntza arloko sail eskudunak finantzatutako EAEko ikastetxe publikoetako ikasleen eskola-garraioa arautzen duen Dekretua aldatzeko Dekretu proiektuari buruzkoa.**

### I. AURREKARIAK

Maiatzaren 19ko 69/2015 Dekretuak dio zein kasutan erabil dezaketen ikastetxe publikoetako ikasleek Hezkuntza Administrazioak antolatutako edo finantzatutako eskola-garraioa, zeintzuk diren horretarako bete beharreko eskakizunak eta zeintzuk diren hezkuntzako zerbitzu osagarri hori jasotzeko modalitate desberdinak. Zerbitzu horren erabiltzaile izan daitezke haur-hezkuntzako bigarren zikloko ikasleak, lehen hezkuntzakoak eta derrigorrezko bigarren hezkuntzakoak. Aldiz, zerbitzu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira haur-hezkuntzako lehen ziklokoak eta ekainaren 9ko 86/2015 Dekretuan araututako oinarritzko lanbide heziketakoak, ez direlako derrigorrezko irakaskuntzak.

Aldaketa honek proposatzen du azken multzoko ikasle horiek ere zerbitzuaren aplikazio-eremuan sartzea, horrela bermatzeko eskola-garraioaren zerbitzu osagarria erabil dezaketela, faktore hori erabakigarria baita kalitatezko eta baldintza berdintasunean oinarritutako hezkuntza-eskubidea betetzeko, bazterkeria oro gaindituz. Bestalde, Kudeaketa Ekonomikoko zuzendariaren 2019ko urtarrilaren 28ko Ebazpenak dio eskola-garraioko ez-ohiko baimenak emango direla *“baldin eta joan-etorrietarako zailtasun bereziak badaude ikastetxearen kokapenaren ondorioz, eta kontuan izanik zonako hezkuntza-eskaintza, distantzia-betekizuna konplitzeko eskatu gabe”*. Ebazpen horren eranskinean jasota daude arauaren hainbat salbuespen, eskola-garraioaren jarraipen batzordeak onartutakoak.

## II. EDUKIA:

Dekretu proiektu honek artikulu bakarra eta azken xedapen bat ditu:

Artikulu bakarrak 69/2015 Dekretua aldatzen du honela:

- 1. artikulua (Xedea eta aplikazio-esparrua) aldatzen du, barne hartuz **bi urtetik aurrera haur-hezkuntzako irakaskuntzak** egiten dituzten ikasleak eta **oinarrizko lanbide heziketakoak**.
- 5. artikulua (Eskola-garraiorako eskubidearen gaineko betekizunak) c) eta b) atalak aldatzen ditu, aipatutako ikasleak txertatuz.

Azken Xedapenak dio noiz sartuko den indarrean Dekretua.

## III. ANALISIA ETA PROPOSAMENAK

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek 14/07 Irizpenean aztertu zuen 69/2015 Dekretua. Une hartan, Kontseiluak hauxe esan zuen: *“Kontua da 2 urteko ikasleek dagoeneko erabiltzen dutela zerbitzu hori, horregatik, Kontseiluak proposatzen du arautu dadila ikasle horien segurtasun egoera”*.

**Horregatik, Kontseiluak uste du positiboa dela etapa horretako ikasleen eta Oinarrizko Lanbide Heziketako adin txikiko ikasleen egoera erregulatzea, betiere segurtasun berme egokiekin egiten bada.**

Halere, Kontseiluak uste du dekretuaren egungo idazkera argitu beharko litzatekeela alderdi hauetan:

- **Ebazpen hau 2 urteko gelako ikasle guztiei aplikatzen zaiela, haur batzuk ez dituztelako bi urte ikasturte hasieran, eta ez dituzte betetzen urtea amaitu arte.**
- **Garraioa bermatuko zaiela 2 urteko gelako ikasle guztiei, baldin eta behar badute eta horretarako baldintzak betetzen badituzte.**
- **Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleei dagokienez, Ebazpenak bere baitan hartuko dituela ikastetxe publiko guztiak, bai Hezkuntza Sailaren menpekoak eta bai Udalaren menpekoak.**

Bestalde, arau honek zehazki aldatzen ez dituen arren, badaude aztertu beharko liratekeen beste alderdi batzuk, 4 urte igaro baitira Dekretu hau argitaratu zenetik: **5. artikulua**, eskola-garraiorako eskubidearen gaineko betekizunak: b) atala

Atal honek dio eskola-garraioa erabili ahal izateko betekizuna dela etxetik hurbilen dagoen ikastetxea aukeratzea, **hain justu ere hura sartzen den eragin-eremukoen artean**, betiere ezarritako gutxieneko distantziak errespetatuz. Bigarren paragrafoan salbuespen bat planteatzen da: ikastetxea hezkuntza administrazioak esleitu izatea.

**Uste dugu birplanteatu egin behar dela etxetik hurbilen dagoen ikastetxearen baldintza, betiere beste ikastetxea eragin-eremuan badago eta gutxieneko ikasle kopuru bat badago garraioa bideragarri egiteko. Hala, familiek aukera izango lukete beren premia eta lehentasunei ongien egokitzen zaien hezkuntza proiektua hautatzeko.**

- **5. artikulua, c) atala**

Atal horrek hauxe dio: “Distantzia neurtzeko, ikaslearen bizilekutik ikastetxerako **ibilbide laburrena** hartuko da erreferentziazat”.

**Kontseiluak proposatzen du idazkera aldatzea eta “ibilbide egokiena” jartzea, uste baitu orografiatik edo beste arrazoi batzuegatik egokiago izan daitekeela laburrena ez den beste bide bat erabiltzea eta, hain zuzen, halaxe aitortzen da aurrekarietan aipatzen den urtarrilaren 28ko Ebazpenean.**

- **6. artikulua:** ibilbideak egiteko baimena Sailak kontratatutako ibilgailuekin.

**Batzorde Iraunkorrek proposatzen du Dekretuak baimena ematea Batxilergoko ikasleak eskola-garraioan eramateko, baldin eta beren erreferentziazko zentroa bizilekutik 4 km baino urrunago badago eta, betiere, plaza libreak badaude.**

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2019ko maiatzaren 3an

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: Nélida Zaitegi

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA